

JAIAK ETA OSPAKIZUNAK

Durango, herri gehienetan legez, hainbat jai eta ospakizun ditugu. Batzuk geure-geureak direnak, San Fausto jaiak esaterako, eta beste batzuk herri eta herrialde askotan legez, geuk ere ospatzen ditugunak. Aspaldikoak, berriak, berriak... Euren kantaren jabe dira asko, ez ordea, San Fausto jaiak. Gure jai patronalei koplak jartzea izango da gure zeregina.

<i>Mari eta konpainia</i>	2
<i>'Txomin Askogura' ipuina</i>	3
<i>Zeuren ipuin kontalari</i>	4
<i>San Juanak</i>	5
<i>Aratusteak edo karnabalak</i>	6
<i>'Durangoko aratusteak' abestia</i>	7
<i>Garai bateko jai nagusiak</i>	9
<i>Urkiola</i>	9
<i>San Faustoak</i>	10
<i>Azken ekoizpena</i>	11
<i>Zer ikasi dut</i>	12

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametzta Interaktiboa • **Koordinazioa:** Iametzta Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkiak:** Leopoldo Zugaza eta Kriskitin Dantza Taldea. • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutziaga ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola. • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.



KAIKO, MAI,
ORAINK EZ DITU,
ONDO EZAGUTEN ETA EMANSO
ZEMPAR EDEANSONO ON ETX
OSPARIAVEN BERRI?




ZAITOZ ETA
ELKARREN KASIKO
SAGUI

ASTIWA?



APUR BAT
SAGI


ESKEN ZURIKO ESKINAI...
 



ESKEN ZURIZ HAZI...



MAKTZENETA AKTE!



NEGLIA

LIDA

BUELTA ETA BUELTA,
ZORRAE ALTU
REHIZO
OUSAJI



"ZAIKAK URPUTU
AKTE!"

ESSEEEEEEEEEEEPIII



BERRIKETAN


- Zer ospakizunetara eraman du Marik Amhed? Zergatik?
- Agertzen diren jaiak Durangon bakarrik ospatzen dira?
- Ezagutzen duzue jai horiei lotutako kantarik?

OSABA BITTOR,
NOIZTIK
OSPATZEN
DIRA JAIK?

EZAGUPIDEA DUDAN
OSPAKIZUNIK
ZAHARRENARI
BURUZKO IPUIN BAT
KONTATUKO DIZUT,
UME.

.....
ipuína

Txomin Askogura



Aspaldi handian, koloreak zazpi eta urtarok lau direla esaten hasi baino lehenago, jendea bizi zen lur hauetan. Eguzki begian zeuden muinoetan bizi ziren, lurrak emankorrak zirelako han eta inor asmo txarrekin etor baletor, urrundik ikusi zezaketelako. Inorena dena harra-patzeko ohitura maltzur hori, ume, ez delako gaur egungoa bakarrik.

Kontuak kontu, ordenagailurik eta mugikorrik barik bizi arren, ez ziren aspertzten gure aurrekoak. Lurrak zer emango, zuhaitzetatik ze fruitu batuko eta animaliak zelan gizenduko, horiexek zituzten bizimoduko ardurak. Jana lana zela bai baitzekiten, eta pazientzia lako zientziarik ez zegoela ere bai.

Eguzkiak eta ilargiak, haizeak, euriak edo elurrak ez zuten hiru egun lehenago abisatzen, gaur egunean legez eta, hala ere, ikasi zuten noiz hartzen duen lurrak atsedean, noiz behar den erein, noiz bildu eta noiz egin jai. Jai egiten ez dakienak ez baitaki lan egiten ere!

Gure amamaren berramamaren amamak kontatzen ei zuen izan zela behinola *Txomin Askogura* izeneko morroi bat. Bere galsoroak inorenak baino gehiago eman behar zuela eta, eguzkia goren gorenean zegoenean kordel batekin lotu eta bere lurrak berotzen jartzea otu ei zitzaion. Besteek atsedean hartzen zuten bitartean, eguzkia muinoaren atzealdean erortzean harrapatuko zuelakoan zegoen. Eta halaxe, kordela hartu eta muinoaren bestaldera joan zen eguzkia harrapatu asmoz. Muinoaren atzealdean beste muino bat ordea, eta gero beste bat eta beste bat eta beste bat... Auzokoek ez ei zuten gehiago *Txomin Askoguraren* berririk izan. Eguzkia ostera, biharamunean ohiko lekutik agertu zen.

Geroztik, eguzkia goren-gorenean zegoenean, auzokoak suaren bueltan batu ohi ziren jai egiteko. Kanta eta dantza, lantzean behin suaren gainetik salto eginez, Txomin Askogurari kantatzen zioten: "*Txomin Askogura, neguan logura, zu baino lehenago etorri da uda!*".

- Zein ospakizuni buruz ari da Osaba Bittor ipuinean?
- Baduzu ospatzeko ohiturarik? Non? Norekin?

Zeu ere ipuin kontalari

Mendeetan zehar, hainbat eta hainbat istorio eta kontu ahoz aho transmitzeko tresna bikaina izan dira ipuinak. Ohitura galdu ez dadin, zuek ere zeregin horretan jarriko zaituztegu, taldeka. Kontuan hartu eskolako gaztetxoenei kontatu beharko diezuela ipuina. Zenbat kide zareten taldean, hainbat zatitan banatu ipuina eta nork berea arretaz irakurri. Bakoitzak berea ikasi eta denon artean ipuina osatu.

Kontuan hartu

Ipuina kontatzerako orduan gogoan izan ohar hauek:

- 1** Entzuleari kontatu behar diozuen istorioa lehendabizi zeuk sinetsi behar duzue.
- 2** Saiatu entzulearen arreta hasieratik erakartzen eta ipuina bukatu arte mantentzen.
- 3** Ipuina kontatzeko hiru erreminta izango dituzu: zeure ahotsa, zeure aurpegia eta gorputzaren mugimenduak. Istorioari indarra emateko baliatu.

San Juanak

San Juan jaien jatorriaz


San Juanak edo Donibane Jaia antzinako jatorria duen jai garrantzitsua da. Udako solstizioaren hasiera dela-eta ekainaren 24an ospatzen dena, nahiz eta udako benetako solstizioa, urte osoko egunik luzeena, ekainaren 21a edo 22a izaten den. Antzina-antzinako tradizioa da.

Ekitaldi ezagunena San Juan sua da, baina bestelako erritu eta ohiturak ere biltzen ditu: iturri, putzu eta erreka batzuetako urez garbitzea, haietako ura edatea nahiz San Juan eguneko goizeko ihintza zapaltzea...

Durango txikia

Sekuentzian zehar gure Durango txikia sortzen joango gara. Gaiarekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue, liburuak, argazkiak, objektuak... Seguru gure azken ekoizpena egiteko lagungarri izango zaizkigula!





Garai bateko San Juanak

Ikusi eta adi entzun ondorengo bideoa. Bertan Feli Uribe Alberdik euren umezaroan San Juan suaren bueltan kantatzen zuten kanta kantatzen du. Arretaz entzun eta bete testuan dauden hutsuneak.

San Juan San Juan

..... *bi*

beste bi

sorginak eta *erre erre*

..... *eta* *gorde, gorde*

..... *San Juan!*





Aratusteak edo karnabalak

Ihauteriak, aratusteak edo karnabalak ospakizun berbera izendatzeko hiru izen dira. Munduan hainbat lekutan ospatzen diren jaiak dira eta Durangon ere baditu bere berezitasunak. Neguko ospakizunak dira aratusteak eta beste asko bezala aspaldikoa da euren jatorria. Durangon uriko aratusteen lehenengo aipamen idatziak XVII. mendekoak dira.

Surrandiak



Durangoko aratusteen bereizgarri nagusia Surrandien konpartsa da. Surrandien jatorria zein den zehazterik ez badago ere, funtsean beste ihauteri batzuetan agertzen diren elementuak biltzen dira pertsonaia honetan: aurpegia ezkutatzeko maskara (sudur luzearekin), arranak animalien hotsa gogoraraziz, puxikak kalean dabilen jendea astintzeko, abarkak oinetan...

Hainbat urtez Surrandien konpartsaren ohitura galduta egon zen harik eta 2000. urtean Kriskitin dantza taldeak Surrandien konpartsa berriz kaleratu zuen arte Hartzarekin batera.



Hartzaren konpartsa Durangoko aratusteetan 1930.

Durangoko Aratusteak

Letragileak: *Ixone Aroma eta Marisa Barrena*

Surrandi, surrandi / kalia gora ta bera
surrandi, surrandi / gaur Durangon nagusi
Surrandi, surrandi / bai izaki beldurgarri
surrandi, surrandi / mozkortuta dirudi

guzur handiak esateagaitik / hasi jatzu sudurra
kaletan burla eta barre ugari / "mascarita" lapurra
Surrandi, surrandi / kalia gora ta bera
surrandi, surrandi / gaur Durangon nagusi

Abarkak jantzita, puxika eskuan
kalera urten dabe laster agertuko dira, oh!
arranak don, din don, ezin sartu elizpera
Komentu kaletik, ariñeketan
Barrenkaleraino dana surrandiz beteta, oh!
Arranak don, din, don, itxi gaituzte gortuta
Karnabal giroan, jan eta edan
Behi zoro okelak hondatu dautso gibela, oh!
Arranak don, din, don, hau bizimodu petrara

Bertoko usadio zarrak / dakartsuguz kalera
gaurkotasuna emonaz, ai, ai, / aratusteari
Egigurenen doinuak kantatuaz GORA CARNAVAL
Eguen zuria dogu, / jaiaren hasiera
Sapatua, erregular, ai, ai / Domingo carnaval
Guztiaren amaiera martitzena. GORA CARNAVAL



MARRAZTU

- *Durango Aratusteak* kantuan Surrandien deskribapena egiten da. Bertan agertzen diren ezaugarriak kontuan hartuta irudikatu ezazu Surrandia zelan imajinatzen duzun.



- Hasieran ere aipatu dugu Durangoko jai nagusiak edo patronalak San Faustoak direla. Baina beti izan al da horrela? Ea bideoa ikusi ostean zer iritzi duzuen.



Entzun: 2'00"

Entzun eta kantatu "Aita San Antonio" Urkiolakoari idatzitako kopia ospetsuok.

Urkiola

Hitzak: *Herrikoiak*
Musika: *X. Amuriza*

Durangon bazkaldute
Mañerian gora
Urkiolara goaz
San Antoniora.

Askok egiten deutso
San Antoniori
egun batean yoanda
bestean etorri.

Urkiolara yoanda
zapatak urrutu
Aita San Antoniok
barriek ingo'itu.

Kortan daukagu txal bat
hazurra ta azala
Aita San Antoniok
loditu daiala.

Urkiola ganeko
paguen onduen
gaguen al daukazu
zer egin genduen.

Trikitri trauki trauki
mailuaren hotsa
Urkiolako punten
fraile burumotza.

Urkiolara juan
Domilun Santirus
lenengo preguntia
nun da Maria Jesus?

Iturrira juan da
laster da etorri
han dauzen mutillekaz
tardau ezpaledi.

Han dauzen mutil horrein
errosarioa
Birjina Santa Klara
Erriojakoa.



Noiztik ospatzen ditugu San Faustoak?

Guztiok dakizuen moduan San Fausto jaiak urrian ospatzen dira, patriaren eguna urriaren 13an baita. San Fausto jaiek joan den mendearen 70. hamarkadatik aurrera hartu zuten indarra eta bultzada nagusia diktaturaren osteko urteetan izan zuten, gaur egun ezagutzen ditugun jaiak bihurtu diren arte.

Hain zuzen ere, diktaturaren ostetxoan agertu zen lehenengo aldiz gaur egun “Betikotzat” daukagun PATXIKOTXU pertsonaia. XXI mendearen hasierara arte itxaron behar da Patxikotxuri konpainia egingo dion PANTXIKE, txosna batzordeak sortutako pertsonaia, agertzeko.



KONTURATU
ZARETE AIPATU
DITUGUN JAI ETA
OSPAKIZUN GUZTIEK
BADITUZTELA EUREN
ABESTIAK?
SAN FAUSTOEK BA AL
DUTE ABESTIRIK?
IDATZIKO AL DUGU
GEUK BAT?



PATXIKOTXU
ETA PANTXIKE
JAIETAKO
PERTSONAIA
ESANGURATSUAK
DIRENEZ,
ZALANTZA BARIK,
SAN FAUSTOETARAKO
IDATZIKO
DUGUN ABESTIAN
AGERTU
BEHARKO
DUTE.



IDATZI

- Abestia idazterako, aurre-lanak eginda edukitzeko, Patxikotxu eta Pantxikeren deskribapenak osatuko ditugu. Idatzi laupabost lerrotan zelakoak diren (kanpo itxura) eta zer izakera edo bereizgarri duten zure irudimenaren arabera.

PATXIKOTXU

.....

.....

.....

.....

.....

PANTXIKE

.....

.....

.....

.....

.....

Asmatu Patxikotxu eta Pantxikeren kanta

Ikusi duzuen bezala, Durangon ditugun jai eta ospakizun guztiek edo euren pertsonaiek badute euren kanta, hain justu Patxikotxuk eta Pantxikek izan ezik. Zuen lana izango da Patxikotxu eta Pantxikeren kanta idaztea. Horretarako *Aita San Antonio* kantako koplak doinua eta neurria erabiliko dituzue, taldeka, gutxienez, LAU KOPLA osatu arte.

Taldeetan egindako koplak kantatu eta errepikatzen diren ideiak baztertuz, sorta bateratu bat osatu beste ikasgeletan kantatzeko.

Zenbait aholku, hurrengo orrialdean. ►

Kontuan hartzeak

- 1 Aita San Antonioren kopen neurria, kopa txikiarena da, 7 eta 6 silabako bi puntuk osatzen dute pareetan errimatuz.
 - Durangon bazkalduta (7 silaba)
 - Mañarian gora (6 silaba eta errima)
 - Urkiolara goaz (7 silaba)
 - San Antoniora (6 silaba eta errima)
- 2 Koplan sartzeko ideia nagusia neurria ekartzea lortzen duzuenean azkenengo hitzarekin (errimarekin) hoskideak diren hitzak bilatu (Adb: gora, San Antoniora)
- 3 Koplak kantatzerakoan jendeari begiratu, ez paperera, eta gozatu kantatzen, seguru emaitza bikaina lortu duzuela-eta!

Ez ahaztu!

Koplak jendurrean kantatzen dituzuen ekitaldia grabatu eta Durango ezagutu proiektuaren helbidera bidali.



Zer ikasi dut?

1. Zer ikasi dut?
.....
.....

2. Zelan ikasi dut?
.....
.....

3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?
.....
.....

4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?
.....
.....

5. Gehien gustatu zaidana
.....
.....